

# Donebastian Bistrok irabazi zuen IV. Sagardo Apuruan ospatutako II. Pintxo lehiaketa

**GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEAK IV.** Sagardo Apurua ospatu zuen pasa den abenduaren hasieran Donostiako Bulebarrean. Bertan, sagardotegi zahar bat berreraiki zen, eta herritarrek sagardo desberdinak zein inguruko tabernetako pintxoak dastatzeko aukera izan zuten, baita bertsoez, trikitixaz eta musikaz gozatzeko ere. Sagardo dastatze 'maridatuetan' zein herri kiroletan parte hartzeko parada ere izan zuten bertaratuek.

Festa honen helburua da sagardoaren kultura jendarteratzea, garai bateko ohiturak eta gaur egungo joerak azal-

Tsi Tao, Boulevard 9, Donebastian Bistro, Kalima, Labrit, Mil Catas eta Soho Organic Club establezimenduek parte hartu zuten ekimenean

tzea, 2018ko uzta berria aurkeztea eta eragile ezberdinen arteko elkarlana bultzatzea Donostian, Sagardoaren hiri-buruan.

Sagardo Apuruaren baitan, ostalaritza-elkartearen laguntzarekin antolatutako II. Pintxo Lehiaketa ospatu zen,



eta partaide izan ziren Tsi Tao, Boulevard 9, Donebastian Bistro, Kalima, Labrit, Mil Catas eta Soho Organic Club establezimenduak.

Horien artean, Donebastian Bistro jatetxeak irabazi zuen bigarren Pintxo Lehiaketa, 'Basque' pintxoari esker. Bestetik, epaimahai herrikoia-

ren saria Kalima tabernak eskuratu zuen, 'Champiñón Manzanito' pintxoarekin.

Mikel Sorazuk (Arzak), Federico Pachak (Diametro 200), Luis Irizarrek, Iñaki Illarramendik (Txokolo) eta Hur Astarbek (Gipuzkoako Sagardo Elkarte) osatu zuten profesionalen epaimahaia.